



Ardanza: «Europa eta estatuekiko jarrerak exigentea izan behar du» / 5



Gaur eztabaidatuko dira Legebiltzarrean 1992rako EAEko aurrekontuak / 6



Gasteizen entzerratu egin dira egoera irregularrean dauden etorkin aljeriarrak / 9

Egunkaria

EUSKALDUNON

Osteguna, 1992ko Urtarrilak 16 / III. urtea / 344. zenbakia / Salneurria: 85 pta. / 4,5 libera

MUSIKA

Itxi egin dute Txibisto

Orain dela zazpi urte Bergal-dean sortu zen Txibisto kontzertu areto eta dantzalekua itxi egin dute arazo ekonomikoek eraginda. Julen Narbaiza Txibistoko egitarauileak adierazi digunez, «penagariena bertako kontzertu azpiegitura ahultzea izango da». / 26

Kroazia eta Eslovenia, Europako mapan bi estatu berri atzodanik

Europak bi estatu berri ditu atzodanik: Kroazia eta Eslovenia. Biek joan den urteko ekainaren 25ean aldarrikatu zuten independentzia eta atzo onartu zieten Europako Komunitateak (EK) eta beste zenbait estatu europarrek. Kroazia eta Esloveniak NBEn sartzeko eskaera egingo dutela iragarri dute dagoeneko.

Bosnia eta Mazedoniak ere independentziaren onarpenerako eskaria egin zioten EKri, baina EK-k ez zien onartu, atzo behinik-behin.

Kroaziaren independentzia onartu du EK-k, baina Arbitraia Batzordeak eskatutakoaren arabera, Kroaziako serbiarren eskubideak bermatzeko aldaketak egin beharko dituzte Konstituzioan.

Kroazia eta Serbiaren arteko gerra hasi zenez geroztik bere lurraldearen % 30 galdu du Kroaziak eta argitzeke geratu den kontua hori da orain. Serbiak izan ere, ez du adierazpen ofizialik egin EK-k beste errepublikan independentzia onartu duenetik. / 17

BESTERIK

GIZARTEA

Arabako lehen parke naturala aurkeztu zuten atzo Eusko Jaurlaritzak eta herrialde honetako Foru Aldundiak / 10

EKONOMIA

EAEko ekonomiak iaz % 2,5eko hazkundea lortu zuela esan du Jon Larrinagak / 14

ESTATUAK

Sindikatuaren iritzi kontrajarriak Griñanen hautaketa dela eta / 16

NAZIOARTEA

Ekialde Erdiko Bake konferentziak Moskun izango du jarraipena urtarrilaren 28an / 19

KIROLA

Izagirrek gogor kritikatu du ziklokros selekzionatzailearen erabakia / 21

1994a arte atzeratu dituzte Aljeriako hauteskundeak

Aljerian 1994. urtea arte hauteskunderik ez egiteko erabakia hartu du Chadli Benjedid lehendakari zenak utzitako boterea duen Estatu Kontseilu Gorenak. Bost partaidez osatu dute Kontseilua, eta buru, Aljeriako independentziaren gerran parte hartu zuen lider historikoa izendatu dute, Mohamed Budiaf. Kontseiluaren osaketa gogor kritikatu du Indar Sozialisten Fronteko idazkari nagusiak. / 18

1991n % 5 igo ziren prezioak EAEn eta % 6,2 Nafarroan

Prezioen inflazioa % 5ekoa izan da 1991n EAEn eta % 6,2koa Nafarroan. Kontsumorako Prezioen Indizea izan ere, jaitsi egin da abenduan —EAEn % 0,2 eta Nafarroan % 0,1—. Estatu espainiarrean prezioek % 0,1eko igoera izan dute bakarrik. Ondorioz, bete egin da Espainiako Gobernuak 1991rako espero zuena —% 5,5ekoa—. Estatu frantsesean % 0,1 igo dira prezioak abenduan, eta % 3,1 1991n. / 13

Korac kopan aurrera egin du Taugresek

Korac kopako final laurdenak jokatzeko moduan izango da Taugres atzo Kroaziako Zadar taldeari 79-72 irabazi ondoren. Aurretik Benettonek galdu egin zuen bere partidua eta klasifikatzeko irabaztea nahikoa zuen Taugresek. Lehen zatiaren amaieran hartu zuten hamar puntu inguruko aldearen barruko joko ikusgarriari esker, eta bigarren zatian abantailari eustea nahikoa izan zuten gasteiztarrek.



Atentatugileek erabilitako autoan utzitako bonbak polizia bat zauritu zuen TEDAXekoak miaztera zihoazenean.

Tiroz hil dute Valencian Manuel Broseta Estatu kontseilukidea

ETAko 'Ibiltari' komandoari leporatu dio Espainiako Poliziak atentatua

Manuel Broseta Espainiako Estatu Kontseiluko partaidea tiroz hil zuten atzo goizean Valencian. Atentatugileek ihes egiteko erabilitako autoak eztanda egin zuten, Poliziak aurkitu eta TEDAXeko artifizierok miaztera zihoazenean, polizia bat arinki zaurituz. Espainiako Barne Ministeritzaren arabera, ETAREN 'Ibiltari' komandoak burutu zuen atentatua.

Goizeko hamarrak pasata Valencian Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatek ateratakoan, bi gazte hurbildu eta tiro egin zioten Valen-

ciako UCDko senadore eta Autonomiarako Estatu idazkari izandako Manuel Brosetari. Lepagainetik sartu eta ezkerreko begitik ateratako balak bapateko heriotza ekarri zion Manuel Brosetari. Gaur egun Espainiako Estatu Kontseiluko partaidea eta Zuzenbide katedradun zen Manuel Broseta, eta PPK esan duenez, Valenciako Generalitateko hautagai aurkezteko asmoa zuen.

Atentatua gertatu eta handik ordu gutxira aurkitu zuen Valenciako Udaltzaingoak atentatugileek ihes egiteko erabilitako autoa. Barcelo-

nan lapurtutako Volkswagen Polo gorriak eztanda egin zuen Polizia Nazionaleko TEDAX taldekoak miaztera zihoazela. Ehun bat metro-ra zegoen polizia nazional bat besoan zauritu zuen leherketak.

Espainiako Poliziaren esandakoaren arabera, Jose Luis Urrusolo Sistiaga eta Idoia Riaño ETAREN 'Ibiltari' komandoak izan ziren atentatugileak.

Valencia eta EAEko alderdi politikoek berehala salatu zuten ekintza, ETARI eta HBRI kritika gogorrak eginaz. / 4